



2026ko GARIZUMA

Deklaratu

GERRA GOSEARI

Haur eta familientzako
jardueren koaderno



Nolako izango da ume hauen bizitza?

**Zer desberdintasun daude
zure bizitzarekin alderatuta?**

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE

Borondatezko Barauaren Eguna
2026ko otsailaren 6a, ostirala

Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala
2026ko otsailaren 8a, igandea



GARIZUMAKO OTOITZAK



I. Astea

Jesus jauna, indarkeria-moduak dira aberastasuna metatzea, besteak baino hobeak garelara sinestea, besteak ez errespetatzea eta ospetsuenak izan nahi izatea, eta jokabide horiek kaltea eragiten dute besteengan. Erakutsiezaguzu umilagoak izaten eta gailentzen ez ahalegintzen, irakatsiezaguzu mundu guztia maitatzen eta mundu baketsu bat egiteko partekatzen.

II. Astea

Jesus, nola gurtu zaitzakegu? Pertsona guztiak maitatuz eta inor ez mesprextatuz, zerbait txarra egiten digutenean barkatuz, egunetik egunera hobeak izanez. Mundu guztiaren eskubideak errespetatuz eta errespetatzen eskatuz. Irakatsiezaguzu baketsuagoak izaten eta gaizkiari gaizkiarekin ez erantzuten.

III. Astea

Jesus jauna, Zu zara ur biziaren iturria. Zutaz fidatzen bagara, zoriontsuago bizi ahal izango gara eta zoriontsuago bihurtuko ditugu gure ingurukoak. Irakatsiezaguzu pertsona guztiak diren bezalakoak onartzen, haien jatorria, arraza, kolorea edo erlijioa edozein dela ere.

IV. Astea

Jesus maitea, askotan ez ditugu gauzak argi ikusten, pertsonak epaitzen ditugu eta horrela ez dugu bakea eraikitzen. Laguniezaguzu haur baketsuak izaten, maitasuna bihotzean edukitzen, Zuk bezala. Zu begirada garbiz hurbildu zinen pertsona guztiengana, eta ikusten lagundu zenien.

V. Astea

Jesus jauna, piztuera eta bizitza zara, benetako zorionera eta bakera garamatzen bidea, eta gure ondoan zaude beti. Frantzisko aita santuak esan zuen bezala, "Barkatu gure irainak, Jauna, guk iraintzen gaituztenei barkatzen diegun bezala, eta barkamen-zirkulu horretan emaniezaguzu zure bakea".

Erramu-igandea

Jesus maitea, guk ere altxatzen ditugu gure palma-orriak eta olibondo-adarrak, bakearen sinbolo gisa. Hosanna kantatzeak esan nahi du onartzea zu zarela Jauna, Jainkoaren Semea. Zure atzetik joan nahi dugu eta, horrela, mundu baketsu bat egin.

MAHAIA BEREIKATZEA

Jesus jauna, eskerrik asko zure Bakea oparitu diguzulako. Gosea, indarkeria eta pobrezia bakearen aurkakoak dira. Mundu baketsua eraikitzeko lagungarria da gainerako pertsonak diren bezala onartzea, zaintzea, partekatzea, eragozpenak sortzen dizkidanari barkatzea, eta planeta eta izaki bizidun guztiak babestea.

Elikagai horiek gure mahaian egon daitezela lan egin duten pertsona guztiak bizi daitezela zoriontsu eta harmonian.



ERANTZUNAK: Hitz ezkutuak: ANAITASUNA, SOLIDARITATEA, eta ESKUBIDEAK
Asmatu, asmatu: BAKEA JUSTIZIAREN FRUITUA DA



HITZ EZKUTUAK

Zoriontsu izateko, mundu baketsu bat behar dugu.
Zer HIRU hitz dira, zure ustez, mundu baketsurako gakoak?

HCANAITASUNAWXYZGHSOLIDARITATEAVBFLMZESKUBIDEAK

ASMATU, ASMATU

Pertsona guztien giza eskubideak errespetatzen direnean lortzen dira justizia eta bakea.

Letrak alfabetoan duten postuaren arabera jarri, eta Garizuma honetan helarazi nahi dugun esaldia aurkituko duzu.




2 1 11 5 1 10 22 20 21 9 27 9 1 19 5 14
6 19 22 9 21 22 1 4 1

DESBERDINTASUNAK BILATU

Hurrengo marrazkien artetik, bi dira indarkeriari eta gerrari buruzkoak eta beste bi bakeari buruzkoak.

Bereiz ditzakezu? Zergatik egin duzu bereizketa hori? Zertan dira desberdinak?



ELKARTASUN-HISTORIAK



Palestina

Amal dut izena, eta nire izenak "itxaropena" esan nahi du. Zisjordaniakoa naiz (Palestina). Gerra-egoeran gaude eta oso zaila zaigu hartzaro duina bizitzeko beharrezkoa dena edukitzea. Hala ere, nire herrian eta nire familian etorkizun baketsuago baten itxaropenari eusten diogu. Espero dugu noizbait eskolara joan ahal izatea, jolastea, ur garbia edatea eta elikagai osasuntsuak jatea. Manos Unidasek nire amari eta Emakumeen Garapenerako Landa Elkarteko beste emakume batzuei lagundu die, ura eta etxeko hondakinak aprobetxatzeko proiektu baten bidez.

**Zer dakizu Palestinako gatazkaz?
Nola eragiten dio Amalen bizitzari?**



Etiopia

Nire izena **Abai** da. Etiopian jaio nintzen. Duela urte batzuk gerra bat izan zen hemen, eta milaka heriotza eta milioi bat desplazatu baino gehiago eragin zituen. Urik gabe, janaririk gabe, eskolarik gabe, ospitalerik gabe... utzi gintuen. Manos Unidasek, hemengo beste elkarte batzuekin elkarlanean, laguntza ematen digu ikastetxeak eraikitzeko eta guk koadernoak, boligrafoak eta beste hainbat gauza edukitzeko.

**Nola lagundu du Manos Unidasek
Abai eskolara joan dadin?**

Kolonbia

Luciana naiz. Nire lurraldea oso polita da, baina mineralak ateratzeko grinagatik dena dago kutsatuta. Azkenaldian euri gehiegi egiten du eta laboreak hondatzen dira. Gure lurraldean indarkeria da nagusi. Fundación Solidaria Arquidiocesana elkarteak, Manos Unidasen laguntzaz, proiektu baten bitartez laguntzen digu. Bakea errespetatua izan dadin ari dira lanean, eta nire amak eta gainerako emakumeek gure familientzako baliabideak dituztela ziurtatzeko ere bai.

**Zergatik da garrantzitsua Lucianarentzat
Manos Unidasek proiektu horri laguntzea?**

